



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2014ko EKAINAREN 24an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2014ko ekainaren 24an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Onintza Gorostidi Murua  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Leire Otegi Elola  
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.  
2014ko maiatzaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2013ko Kontu Orokorraren behin betiko onespena, hala bada.**
- 5. Erniozaleak Kultur Elkartek eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 6. Beleburupe Guraso Elkartek eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 7. 2014 urterako udal langileen egutegiaren onespena, hala bada.**
- 8. Alkizako Areta-Aitzetagain baserrietara doan herri bidea konpontzeko kontratu esleipena, hala bada.**
- 9. Alkizako Herri Eskolako eraikineko fatxadaren eta hegalen eraberritzeko kontratu esleipena, hala bada.**
- 10. Beste batzuk.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## 11. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko maiatzaren 27ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletzeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

19/2014 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 28koa, J.I. jaunari baimena ematea, pinudi bat atera behar duenez, hauek garraiatzeko, herri bidea erabiltzeko, ebazten duena.

20/2014 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 30ekoa, faktura txikien zerrenda onartu eta bere ordainketa egin dadin agintzea, ebazten duena.

21/2014 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 4koa, 2014 urteko lehenengo sei hilabeteko zabor tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

22/2014 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 19koa, J.M. jaunak, pinudi bat atera behar zuenez, hauek garraiatzeko, herri bidea erabiltzeko jarritako fidantza bueltatzea, bidea txukun utzi duelako, ebazten duena.

23/2014 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 19koa, 2014ko abenduko aparteko ordainsariari dagozkion nominaren aurrerakinak eskuratzeko eta ahalbideratzeko prozedura onartzea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- LAU HAIZETARA	312,18€
- LAU HAIZETARA	453,75€



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.525,75€
- LABUR	202,15€
- ARGITU	156,50€
- SOLRED	166,26€
- IZADI	152,94€
- LYRECO	167,75€
- TOLOMENDI	122,40€
- ALKORA	977,20€
- AUDAX	187,21€
- AUDAX	514,89€
- EUSKALTEL	113,49€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **5.052,47** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

### **2013KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2014 urteko maiatzaren 12an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udalbatzarreko Lehendakariak emandako 2013 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**BOSTGARREN PUNTUA**  
**ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA**  
**ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik Erniozaleak Kultur elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten zortzi herrien arteko ibilaldia 2014 urteko maiatzaren 11an egin dela eta aurten Bidania-Goiatz-etik abiatu dela. Ibilaldia antolatzeko ibilbideak txukuntzea eta margotzea beharrezkoa egin da. Horretarako Alkizako Udalari 374,00-eurotako dirulaguntza eskaera egiten dute.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari 374,00.-eurotako dirulaguntza onestea, 2014ko maiatzaren 11an egin den ibilaldia antolatzeko .

BIGARRENA.-374,00.-eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat aurkeztu beharko duela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.-Interesdunari akordio honen berri ematea.

**SEIGARREN PUNTUA**  
**BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA**  
**ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, San Juan bezperako festan eta San Martin eguneko festan hainbat ekintza burutzen dituztela. Hauen kostua finantzatzeko Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beleburupe guraso elkarteari 320 eurotako diru-laguntza ematea, San Juan bezperako festan eta San Martin eguneko festan hainbat ekintza burutzeko.

BIGARRENA: 320 eurotako gastua onartzea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Beleburupe Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat aurkeztu beharko duela, Udalak emandako diru-laguntza zirituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **2014 URTERAKO UDAL LANGILEEN EGUTEGIEN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Udal langileak aurkeztu dutela 2014 urterako lan eta opor egutegiak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileak aurkezturiko 2014 urterako egutegiaren onespena.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **ALKIZAKO ARETA-AITZETAGAIN BASERRIETARA DOAN HERRI BIDEA KONPONTZEKO KONTRATU ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Areta-Aitzetagin baserrietara doan herri bidea oso egoera kaskarrean dagoela, eta konpontzeko premian dagoela.

Ikusirik, Alkizako Udalak, Alkizako Areta-Aitzetagin baserrietara doan herri bidea konpontzeko hiru aurrekontu eskatu dituela, hain zuzen, Construcciones Echaide, S.A., Orsa eta Iparragirre enpresei. Construcciones Echaide, S.A. enpresarena izanik eskaintzarik hoberena.

Ikusirik obra txiki bat dela esleitu beharrekoa.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Areta-Aitzetagin baserrietara doan herri bidea konpontzeko kontratua Construcciones Echaide, S.A. enpresari esleitzea 8.036,43 euro kopuruan.

BIGARRENA: 9.724,08 eurotako gastua onestea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO HERRI ESKOLAKO ERAIKINEKO FATXADAREN ETA HEGALEN ERABERRITZEKO KONTRATU ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako herri eskolako eraikineko fatxada eta hegala egoera kaskarrean daudela.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultur sailak Alkizako Herri eskolako eraikineko fatxada eta hegala eraberritzeko diru-laguntza bat esleitu dutela.

Ikusirik Alkizako Udalak, herri eskolako eraikineko fatxadaren eta hegalean eraberritzea egiteko, hiru aurrekontu eskatu dituela, hain zuzen ere, Pasai igeltseritza, Urdaintzi eraikuntzak S.L. eta Yesilan enpresei. Yesilan enpresak aurkeztu duelarik aurrekontu hoberena.

Ikusirik obra txiki bat dela esleitu beharrekoa.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

### **ERABAKITZEN DUTE**

LEHENA.- Alkizako Herri eskolako eraikineko fatxadak eta hegala eraberritzeko kontratua Yesilan enpresari esleitzea 10.556,50 euro kopuruan.

BIGARRENA: 12.773,37 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

### **BESTE BATZUK**

***Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.***

**10.1. ALKIZAKO URRUTIKOETXE ETXEAREN SEGURTASUNERAKO JARRAIPEN ESKOILERA BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.K.E.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik J.K.E jaunak eginiko eskaera non, Alkizako Urrutikoetxe etxearen segurtasunerako lehen egindako eskoileraren jarraian eustorma bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.K.E. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Urrutikoetxe etxearen azpian egindako eskoileraren jarraian eustorma bat egiteko obra baimena ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

## **10.2. HAUR PARKEAREN BERRITZE INTEGRALA EGITEKO LANEN ONESPENA ETA ESLEIPENA II. FASEA, HALA BADA**

Ikusirik 2014ko martxoaren 25ean egindako Udalbatzarrean, haur parkearen eraberritzea egiteko lanen onespena eta esleipena onestu zela.

Ikusirik proiektua guztiz bukatzeko, lurra hobeto egokitu egin behar zela, horretarako Garra S.L. ri aurrekontu bat eskatu zaio, 9.752,60 euroko izanik.

Ikusirik esleitu behar diren lanak, "kontratu txikia" direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Haur parkearen berritze integrala deritzon lanak, II. Fasea, lurraren zati baten hornidura GARRA S.L. enpresari esleitzea, 9.752,60 euroko diru-kopuruan (BEZ barne)

BIGARRENA: 9.752,60 euroko gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

## **HAMAIKAGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*